

---

**LANAK, POZAK ETA KEZKAK**

---

EUSKERAZALEAK euskerea zapalduta eta askoren aurrean lotsagarri lez agertzen zan aldian sortutako alkartea dogu. Ordurik ona, urterik urtera, bere lanak aurrera eroan dauz: Euskerea irakastea, liburuak argitaratzea, ipuin-sariketak, Bizkaierearen asteak, inoz komik'e sariketea be egin dogu, urtero ateraten dan egutegia eta ekintza guztiak josten dauzan ZER Aldizkaria.

\*

Alkarte onen kondairan auxe agertzen da argi: Euskerea zapalduta egoan aldi aretan era bateko lana egiten zala, izkuntzari zor jakon zaletasuna bizirik aterateko eta orain, demokraziaren aldi onetan, euskerearen zati aundi bat, erdia baiño geiago dan zatia, Bizkai'ko euskalkia baztertu dauskuela eta ortik datozen arazoak doguz kezkarrienak.

Lanak emoten dauan poza ez jaku falta eta orregaitik an or emen ikusten dogu euskerea ondo erabilten dauan jentea eta Bilbo tarrak izanik, euskerea dakienak gitxi diralako, non ikasi daben itauntzen dautsegunean, erantzun pozzarria emoten dauskue sarritan: EUSKERAZALEAK ALKARTEAN.

Orra or, lanak, pozak eta kezkek, orra or Eukerazaleak alkartearen bititza.

Gure alkartea osotzen daben bazkideak ez dira milla ta bosteunera eltzen, baiña ortxe-ortxe dabiltz. Guztiak artzen dabe alkargarri dan ZER eta geienak ordaintzen dabe urteroko saria. Sari au kobratzen joatea gatxago izaten da errietan ,eta or ba-dagoz arazo batzuk. Bakoitxak arduratu bear leuke ordantzeko, baiña jakiña, gaurko munduan ardura askoren artean bizi gara eta aitzu be errez egiten dira olako gauzak.

Dana dala, gure Alkartek osasun naikoa ona daukala esan geinke.

\*

Ori orrelan dala baieztu arren, ezin ukatu baste gai arduragarri bat: Alkartea osasuntsua izan arren, adinez aurreratua da, edo, beste era batera esateko, bazkiderik geienak ez dira gazteak eta Zuzendaritza-Batzordea aldatzeko egunak etorten diranean, eskariak ugari egin arren, ez da agertzen ordezkorik. Noizean bein egiten dira aldakuntzaren batzuk, baiña gitxi.

Beste alkarte batzui be antzera jazoten jakela eta gaurko giroaren ondorena dala gazteak olako arazoetara sartu nai ez izatea... urtenbide bat da, baiña ez egokia. Gazteak eta elduak guztiak osotu bear leukee ESKERAZALEAK ALKARTEA eta orretarako urtero bazkide barri batzuk bear litzakez. Zarrak, bizitzearen legea alan dalako ba-joakuz eta barriak ez dira ainbeste urreratzen.

LANAK, POZAK eta KEZKAK, baiña gu aurrera, geure bazkideen laguntzaz eta Euskalerrriak edo bertoko erakundeak emoten dauskuen diru-laguntza ugariagoa izan bear leukenagaz.